



Baliabide elektronikoak erabiltzeko arauak

Deustuko Unibertsitateko erabiltzaileek baliabide elektronikoak erabili ahal izateko, zenbait hornitzailearen lizentziak ditu kontratatuta liburutegiak. Kontratuetan ezartzen da **helburu akademikoetarako** baino ezin direla erabili baliabide horiek.

Esparru horren barruan bilatu, ikusi, inprimatu eta biltegiratu ditzakete Deustuko Unibertsitateko erabiltzaileek aldizkarietako artikuluak, liburuen kapituluak edo datu baseen erregistro partzialak, hau da, **ikertzeko, irakasteko eta ikasteko**.

Horrekin batera, erabilera orokorrari muga batzuk ere ezartzen zaizkio:

- Ezin da aldizkari, liburu elektroniko edo eduki oso edo zati oso esanguratsurik jaitsi datu baseetatik; ezin da informazioa masiboki jaitsi baliabide batzuetatik.
- Ezin da manipulatu edo aldatu baliabide bateko erregistro, dokumentu edo osagairik.
- Ezin da erabili jasotako informazioa helburu komertzial edo irabazizkoetarako.
- Oro har, ezin da indarrean dagoen Jabetza Intelektualaren Legea (1/1996 E.D., apirilaren 12koa, 21/2014 Legeak, azaroaren 4koa, aldatua) hautsiko duen erabilerarik egin.

Erabiltzailearen batek baliabide horien erabilera desegokirik eginez gero, unibertsitateko elkarte osoa baliabide horretarako sarbiderik gabe geratuko litzatekeenez, goian deskribatutakoak betetzen ez dituzten **erabiltzaileei zerbitzua erabiltzeko eskubidea eten** egin diezaieke Liburutegiak.